



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko irailaren 14an

67 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Arga ibaian eta Egues errekan berriz ere izandako kutsadurari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (4. or.).
- Herrilan Kontseilaria buru duen “Batzorde politikoa”ri buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egin (5. or.).
- Zolinako hiri bioklimatikoan energia berriztagarriak erabiltzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (5. or.).
- Zakurren borroka erazteko hartutako neurriei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (6. or.).
- Zakurrak identifikatzea dela eta, izapidatutako zehapenei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (7. or.).
- Mikrotxipa irakurtzekoaren gutxi gorabeherako kostuari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (7. or.).
- Mikrotxipik ez daramaten zakurren kontrolari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (8. or.).
- Abuztuan Imarkoainen izandako uholdeengatik kaltetuek eskatutako kalteordainei buruzko galdera, Miguel Angel Larráyo Lezáun Foru Parlamentari jaunak egin (9. or.).
- Belateko tunelak ezkatatzea eragin duten arrazoiei buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egin (9. or.).
- Ponsali emandako estatu-laguntza zela eta, Europako Batzordeak espediente bat irekitzeko erabakiari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egin (10. or.).
- Sakanan izandako bruzelosi-agerraldia erazteari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egin (11. or.).
- Estatuko Tributu Agentziak antzemandako zerga-iruzurrari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egin (11. or.).
- Foru Administrazioako ordenadoreetan “2000 ondorioa” saihesteko aurreikusitako jarduketei buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egin (12. or.).

- San Adriándik igarotzean Ega ibaiako ureztatze-ubide baten kutsadurari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- Nafarroan ur jabari publikoan kokaturiko lau eraikuntzari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- Itoizko saihesbideko obrei buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- Nafarroako Gobernuak eta RTVE ente publikoak Nafarroako lurralde-zentroaz izenpetu zuten hitzarmena birnegoziatzeari buruzko galdera, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (15. or.).
- Nafarroako Autopistaren bidesari berriak ezartzeari eta horren ondorioei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- Nafarroako Autopistari buruzko akordio berrian, erreserba eta leheneratze fondoan egoera eta eboluzioari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- Ega ibaian, San Adrián herrian, hain zuzen, arrain hiltzea eragin zuen kutsaguneari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (17. or.).
- Nafarroan, 1998 urtean zehar, arrainen heriotza eragin duten kutsaguneei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Negutegi-efektua eragiten duten gas igorpenak gutxitzeko Parlamentu honek Nafarroako Gobernuari eskatutako jarduketa proiektuari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- Naturaren interpretazio zentron ezartze- eta garatze-mailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (20. or.).
- Euskal Autonomia Erkidegoan trafikoa arautzeko neurri bereziak indarrean egoteak gure komunitatean duen eraginari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- Esnearen eta esnekien Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzazkeen eraginei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (23. or.).
- Haragitarako behiaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzazkeen eraginei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (24. or.).
- Bidasoan ibaiaren ingurunean lurzoruen kutsadura kontrolatu eta jarraitzeko jarduketan emaitzei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (25. or.).
- Industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, zuzendu eta kontrolatzeko inbertsioetarako 1997ko dirulaguntzei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (26. or.).
- Industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, zuzendu eta kontrolatzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (27. or.).
- Abeltzaintza ustiatzearen ingurugiro eragina aurreikusi, gutxitu eta zuzentzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (28. or.).
- Abeltzaintza ustiatzearen ingurugiro eragina aurreikusi, gutxitu eta zuzentzeko inbertsioetarako 1997ko dirulaguntzei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (29. or.).
- 1997an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (30. or.).
- 1998an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (31. or.).
- Zangoza, Etxarri-Aranatz eta Elizondo eskualdeetako emakumeen osasun laguntzari buruzko galdera, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (32. or.).
- 1998an, kalitatea, diseinua eta konpetibitatea hobetzeko dirulaguntzei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (33. or.).
- Nafarroan kokatuta dauden enpresen jarduerak eragindako ingurugiro hondaketari aurrea hartzeko egin den dirulaguntzen kontzesioari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (34. or.).
- Hondatutako eremuak leheneratu eta ingurugiro eraginak zuzentzeko buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (35. or.).

- Lurzoruak deskontaminatzeko egindako jarduketei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (36. or.).
- Lurzati berrantolamenduaren prozesuari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (37. or.).
- Ustiategiaren oinarritzko azalerei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (38. or.).
- 1998ko abuztuaren 23an, Arga ibaian arrain hilak agertzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (39. or.).
- 1998ko abuztuaren 23an, Ultzama ibaian arrain hilak agertzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (39. or.).
- Ustiategiaren oinarritzko azalera eratzeko laguntzei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (40. or.).
- Lurzati berrantolamendurako laguntzei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (41. or.).
- Irati eta Aragón ibaietako landarediaren azterlanari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (42. or.).
- Bertizko Jaurerriko ugaztunen inbentarioa eta kudeaketarako irizpideei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (42. or.).
- Nafarroako basoilo handien populazioaren bideragarritasun azterlanari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (43. or.).
- Nafarroako Gobernu ELA eta LAB sindikatuekin bildu ez izanari buruzko galdera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak egina (44. or.).
- Comepor-ekin zerikusia duten hainbat gairi buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina (44. or.).
- PFEZen aitortzen urteroko kanpainan erabiltzen diren Antso Azkarra kaleko lokalei buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina (45. or.).
- “Kartzela arloko laguntza juridikoaren zerbitzua” izeneko 33570-7 aurrekontu-lerroaren egoerari buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak egina (45. or.).
- Etorkinak bertakotzeko ematen diren dirulaguntzei buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (46. or.).
- Burlatako osasun etxea handitzeko proiektuari buruzko galdera, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (46. or.).
- “José M^a Iribarren” ikastetxeari buruzko galdera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak egina (47. or.).

F saila:
GALDERAK

Arga ibaian eta Egues errekan berriz ere izandako kutsadurari buruzko galdera*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Arga ibaian eta Egues errekan berriz ere izandako kutsadurari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldean den "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

Gobernuak 1998ko ekainaren 3ko erantzuna bidali ondoren, 01974 espediente-zenbakiarekin, eta aurretik gertatu zen isurketa kutsagarriak Arga ibaiko ur-populazioan izandako eraginei buruzko azterketak bukatzeko ia-ia denborarik gabe, berriz ere, bi isurketek milaka arrain hil omen dituzte Arga ibaian eta Egues errekan.

Apirilean gertatu zen aurreko kutsatzean, ezin izan zuten gertaturiko kutsaduraren arrazoirik finkatu. Azterketek eta nekropsiek ez zuten aparteko anomaliarik agertu. Atera al izan zuten ondorio ia bakarra izan zen toxizitate handiko gaiak eragin zituela arrainen heriotza, eta ur azalean bizi diren arrainei eragin ziela.

Eraitza hain urria izanda, argi dago Gobernuaren sinesgarritasuna eta eraginkortasuna kolokan daudela, erabili beharreko azterketa eta aurre hartzeko neurriak direla eta.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Zein izan dira Arga ibaian eta Egues errekan berriz ere izandako kutsaduraren arrazoiak?
2. Zer nolako kutsadura edo/eta toxikotasun emaitzak eman dituzte analisiek?
3. Zer nolako ikerketa egin da sorturiko kutsaduraren arrazoiaren erantzuleak aurkitzeko?
4. Zer nolako ondorioak atera ditu Ingurugiro Departamentuak gertaturikoari buruz eta zein prebentzio neurri hartuko ditu gertatutakoaren antzeko egitateak berriz ez daitezen gerta, zigorgabetasunik gordinenean.

Iruñean, 1998ko uztailaren 3an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Herrilan Kontseilaria buru duen “Batzorde politikoa”ri buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Herrilan Kontseilaria buru duen “Batzorde politikoa”ri buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetz, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduen babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

“Batzorde Politiko” bat dagoela jakin ahal izan dugu, Herrilan Kontseilaria buru duena eta Nafarroako eta Frantziako ordezkariak biltzen ditue-

na.

Prentsaren arabera, Parlamentuko indar politikoaren ordezkariak eta eragindako eskualdeetako alkateak izan ziren orain dela oso gutxi eginiko bileran.

Hurrengo zehaztasunak jakin nahi ditugu:

- Nafarroak zer ordezkari duen aipatu Batzordean. Izenak eta zeren arabera diren ordezkari.

- Nola egin den aipatu pertsonen izendapena eta zer helbururekin.

- Batzorde horrek hurrengo urteetan zer “ekin-tza” burutzeko asmoa duen.

- Aipatu pertsonak orain arte egin dituzten bilerak. Zehatz bitez tokia, egunak eta sortutako gastuak.

Iruñean, 1998ko uztailaren 3an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Zolinako hiri bioklimatikoan energia berriztagarriak erabiltzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Zolinako hiri bioklimatikoan energia berriztagarriak erabiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetz, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak Zolinako Hiri Bioklimatikoari buruz agindu duen azterlana iragarri diete komunikabideei oraintsu. Zehatz-mehatz argitaratuta agertzen ziren gai bakanetako bat zen dotazio-gunea, etxebizitza-multzo biek eginen duten angeluan kokatu behar zutena, eta dotazio-gune horretan gasolindegia jarriko zutela ere agertzen zen.

Hauxe zen gakoetako bat, jatorrizko funtsezko ideia ez esateagatik: hiri bioklimatikoak energia berriztagarriak erabiliko zituela, eolikoa eta eguzkikoa batez ere, eta abar, eta abar.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

- 1.- Urbanizazioan gasolindegia jartzeko ideia Gobernuak egin dituen gomendioetatik atera den.

- 2.- Non geratu den konpentsazio bidezko energi askitasunari buruzko hasierako planteamendua (energi ekoizkortasun handiko aldiek energia saretik hartu beharreko beste batzuk berdindu

behar zituzten), izan ere, orain badirudi azterlanak behar den energia guztiaren %62,65 baino ez duela jarri, askitasunaz ari denean.

Iruñean, 1998ko uztailaren 21ean

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Zakurren borrokak erauzteko hartutako neurriei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak zakurren borrokak erauzteko hartutako neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarrikoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

1994ko ekainaren 13an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean maiatzaren 31ko

7/1994 Foru Legea, animalien babesari buruzkoa. Foru Lege horrek arauak ezarri zituen animalia etxeokak eta aloktonoak babesteko, haren lehen artikulua jaso duen bezala.

Aipatu Foru Legeko bigarren artikulua hainbat agindu eta debeku jaso zituen, eta animaliak erroldatu eta identifikatu beharra dago, agindu-debeku horiek kontrolatuko badira. Aldi berean, zehapenak ezarri beharko zaizkie Legearen arabera aritzen ez direnei, animaliak identifikaturik izanen badira.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

Aipatu Foru Legea indarrean sartu zenetik, zer jarduketa burutu dute zakurren borrokak Nafarroatik erauzteko? Kontuan izan bedi aipatu Foru Legeko 4. artikulua arabera debeku dela animaliak horrelakoetan erabiltzea, sufrimendua edo tratu txarra ekar diezaikeelarik.

Iruñean, 1998ko uztailaren 21ean

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Zakurrak identifikatzea dela eta, izapidatutako zehapenei buruzko galde- ra

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak zakurrak identifikatzea dela eta, izapidatutako zehapenei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

1994ko ekainaren 13an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean maiatzaren 31ko

7/1994 Foru Legea, animalien babesari buruzkoa. Foru Lege horrek arauak ezarri zituen animalia etxeokak eta aloktonoak babesteko, haren lehen artikulua jaso duen bezala.

Aipatu Foru Legeko bigarren artikulua hainbat agindu eta debeku jaso zituen, eta animaliak erroldatu eta identifikatu beharra dago, agindu-debeku horiek kontrolatuko badira. Aldi berean, zehapenak ezarri beharko zaizkie Legearen arabera aritzen ez direnei, animaliak identifikaturik izanen badira.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

7/1994 Foru Legea indarrean sartu zenetik, zenbat zehapen izapidatu ditu Nafarroako Gobernuak zakur-jabeen aurka, zakurrak identifikaziorik (txip) gabe edukitzeagatik?

Iruñean, 1998ko uztailaren 20an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Mikrotxipa irakurtzekoaren gutxi gorabeherako kostuari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak mikrotxipa irakurtzekoaren gutxi gorabeherako kostuari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

1994ko ekainaren 13an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legea, animalien babesari buruzkoa. Foru Lege horrek arauak ezarri zituen animalia etxeokak eta aloktonoak babesteko, haren lehen artikulua jaso duen bezala.

Aipatu Foru Legeko bigarren artikulua hainbat agindu eta debeku jaso zituen, eta animaliak erroldatu eta identifikatu beharra dago, agindu-debeku horiek kontrolatuko badira. Aldi berean, zehapenak ezarri beharko zaizkie Legearen arabera aritzen ez direnei, animaliak identifikaturik izanen badira.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zenbat balio du mikrotxipak irakurtzekoak, gutxi gorabehera?

2.- Nafarroako Gobernuak dakienaren arabera, zenbat udaletan dute mikrotxipak irakurtzekoa?

3.- 7/1994 Foru Legea indarrean sartu zenetik lau urte bete diren honetan, Nafarroako Gobernuaren ustetan, zer bide hartu behar da egungo nahasmena eta eraginkortasunik eza gainditzeko?

Iruñean, 1998ko uztailaren 20an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Mikrotxipik ez daramaten zakurren kontrolari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Mikrotxipik ez daramaten zakurren kontrolari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

1994ko ekainaren 13an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legea, animalien babesari buruzkoa. Foru Lege horrek arauak ezarri zituen animalia etxeoak eta aloktonoak babesteko, haren lehen artikulua jaso duen bezala.

Aipatu Foru Legeko bigarren artikulua hainbat agindu eta debeku jaso zituen, eta animaliak erroldatu eta identifikatu beharra dago, agindu-

debeku horiek kontrolatuko badira. Aldi berean, zehapenak ezarri beharko zaizkie Legearen arabera aritzen ez direnei, animaliak identifikaturik izanen badira.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1.- Nola kontrolatzen dira identifikaziorako txipik ez daramaten zakurrak eta nori eskatzen zaio balizko erantzukizuna identifikaziorik, eta beraz, zakurraren arduraduntzat jo daitekeenik ezean?

Beste alde batetik, zakurrak deslari ibiltzea errazten ari da egoera honekin, 2000 inguru izaten omen dira urtero, animaliak babesteko Nafarroako elkarteko datuen arabera.

2.- Nola dago animalien identifikazioa kontrolatzeko datu-biltegia, bai Estatuan, bai Nafarroan?

3.- Zer etorkizun du mikrotxiparen bidezko identifikazioak Nafarroan? Esandakoaz gain, kontuan har bedi gure Komunitatean marka jakineko txip bat besterik ez omen dela aintzatesten, hori besterik ez dela irakurtzen, merkatuan beste batzuk badiren bitartean, bestelako autonomia erkidegoetan eta Europako Batasunean onartuak eta hemen irakurri ezin direnak.

Iruñean, 1998ko uztailaren 21ean

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Abuztuan Imarkoainen izandako uholdeengatik kaltetuek eskatutako kalteordainei buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak abuztuan Imarkoainen izandako uholdeengatik kaltetuek eskatutako kalteordainei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

1997ko abuztuaren bostean, uholdeak gertatu ziren Imarkoainen, Iruñerriko Garraioaren Hiriko obren ur-bilketa aurreikusi gabe zegoelako.

Era berean, aipatu Garraioaren Hiria eraikitzen ari zirela, bideak, errepideak, eta abar erabili

dituzte obren esleipendunek, eta egoera tamalgarririan utzi dituzte.

Uholdeek kaltetutakoek zein hondaketak jasan dituztenek epaitegiaren aurrean salatu nahi dituzte egoera horiek eta Nafarroako Gobernuari dagozkion kalteordainak eta hondamenak konpontzea eskatu, Nafarroako Gobernuak gertaera horiei eta erreklamazio ugarietara erantzun positiborik eman ez dielako.

1.- Nafarroako Gobernuak zer aurreikusi du uholdeek kaltetutakoeren erreklamazioak konpontzeko.

2.- Garraioaren Hiria eraikitzeko pasatzen diren kamioiek eragindako kalteak konpontzea eskatzen ari da Imarkoaingo herria. Nafarroako Gobernuak zer aurreikusi du konponketa horiek bideratzeko?

3.- Nafarroako Gobernuak ez du erantzukizunik hartu elkar ulertzeko bidean. Zer jarrera hartuko du Nafarroako Gobernuak kaltetuek epaitegiaren erantzunaren erreklamazioa dela-eta?

Iruñean, 1998ko uztailaren 27an

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezaun

Belateko tunelak ezkatatzea eragin duten arrazoiei buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Belateko tunelak ezkatatzea eragin duten arrazoiei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Arangurennek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Almandozko tuneleko estaldura ezkatatzearen ondorioz, tunela itxi eta trafikoa Belateko mendatetik eraman beharra gertatu da. Belateko eta Almandozko tuneletako kontrolategian antzeman zioten ezkatatzeari.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1.- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren ustetan, zeintzuk izan dira ezkatatzea eragin duten arrazoiak, tunela trafikoari ireki eta zortzi hilabete eskas baino ez direnean igaro?

2.- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak uste al du ezkatatzea gertatu den tokian tuneleko barrualdea indartu izan balute tunela ixtea ekidin ahal izanen zela?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 4an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Ponsali emandako estatu-laguntza zela eta, Europako Batzordeak espediente bat irekitzeko erabakiari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Ponsali emandako estatu-laguntza zela eta, Europako Batzordeak espediente bat irekitzeko erabakiari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Europako Batzordeak 1997ko maiatzaren 12an jakinarazi zion Espainiako Gobernuari espe-

dientea irekitzea erabaki zuela, Ponsali emandako estatu-laguntza zela eta.

1997ko bukaera aldera, Kontuen Ganbarak argitara eman zuen Ponsal eta Comeporri emandako laguntza publikoei buruz eta hauxe esan zuen: Foru Administrazioak finantza-arriskuak bereganatu arren, ez zirudiela emandako laguntzak enpresen bideragarritasuna bermatzeko balio izan zutenik.

Europako Batasunak oraintsu erabaki du Ponsali eskatzea 750 milioi pezeta laguntza publiko itzul ditzala.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Zer jarrera hartuko du Nafarroako Gobernuak Bruselan Ponsali buruz hartu duten aipatu erabakia dela eta?

2.- Zer neurritan uste dute eraginen diola erabakia enpresaren ekoizpenari, eta zer eragin izan dezake enpresako langileengan?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 4an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Sakanan izandako bruzelosi-agerraldia erauzteari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Sakanan izandako bruzelosi-agerraldia erauzteari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Urbasa eta Andiako larre-batzarrak eta Sakanako abeltzain talde batek idatzia eman zioten

Ignacio Martínez Alfaro Nekazaritza kontseilari jaunari eta berehalako neurriak eskatu zizkioten Etxarri Aranatzen dagoen behitegi bateko bruzelosi-agerraldia eteteko.

Abeltzainek bere kezka agertu zioten, dela hamasei hilabete hasi zen bruzelosi-agerraldiak bere horretan dirauelako. Pertsonengana ere heda daitekeen gaitz honek galera ekonomiko handiak ere sor ditzake.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Zer neurri hartu du edo hartuko du Nekazaritza Departamentuak bruzelosi-agerraldiaren arazoa konpontzeko, Sakanako abeltzain askori eragiten baitio?

2.- Nafarroako Gobernuak uste al du beharrezko neurriak hartu direla arazoa konpontzeko, denbora askotxo igaro baita antzeman zitzaionetik?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 4an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Estatuko Tributu Agentziak antzemandako zerga-iruzurrari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Estatuko Tributu Agentziak antzemandako zerga-iruzurrari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

tuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren iruzurrari antzeman dio Estatuko Tributu Agentziak, oraintsu. 130.000 milioi pezeta baino gehiagoko zergaoinarriak hartzen omen ditu. Zazpiehun enpresatik gora zeukan iruzurrarekin zerikusia, horietako zuzendari batzuk ere atzitu zituzten. Ustelkeriaren aurkako fiskaltzaren esku dago kasua, eta sumarioa isilpean edukitzea erabaki dute.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

Zerga-iruzurrak zerbaitetan eragiten al dio Nafarroako Ogasunari? Hala bada, zer kopurutan? eta, zenbat enpresari?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 4an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Foru Administrazioako ordenadoreetan “2000 ondorioa” saihesteko aurreikusitako jarduketei buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Foru Administrazioako ordenadoreetan “2000 ondorioa” saihesteko aurreikusitako jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegieak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Arangurenak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Gauza jakina da datorren 1999ko abenduaren 31n bukatuko dela ordenadoreentzako gako-aldi

bat. Zerbait egiten ez bada, ordenadoreek uste izanen dute 1900. urtera igarotzen direla. Ondorioz, bere barruan dituzten datuetarako ondorioak oso larriak izan daitezke.

Gaia aztertu eta haren balizko ondorioei irtenbidea emateko, Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak lege bat aurreikusi du, 750.000 milioi pezeta inguruko inbertsioarekin. Espainian, Administrazio Publikoen Ministroak iragarri du 15.000 milioi pezeta inguru inbertitu nahi dituztela arazoa konpontzeko.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1.- Nafarroako Gobernuak jarduketaren bat aurreikusi al du 1999. urtetik 2000.era igarotzearen ondorio datu-suntsiztaileak saihesteko?

2.- Zenbat diru erabiliko du “2000 ondorioa” saihesteko Foru Administrazioaren ordenadoreetan? Zer aurrekontu-kontusaili eragingen dio?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 4an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

San Adriándik igarotzean Ega ibaiko ureztatze-ubide baten kutsadurari buruzko galdera

ION IÑAKI ERRO ARMENDÁRIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak San Adriándik igarotzean Ega ibaiko ureztatze-ubide baten kutsadurari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendáriz, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean ondoko galdera egin du.

Milaka arrain hil agertu da Ega ibaiko ubide batean, San Adriándik gertu, abuztuko lehenbiziko egunetan. Herriko auzoek eta talde ekologistek salatu dutenaren arabera, hainbat enpresaren hondakinak botatzen omen dituzte ubide horretara.

Urte honetan, zortzigarren aldia da arrain hilak agertzen direla Nafarroako ibaietan, Nafarroako Gobernuako Ingurugiro Departamentuari horri buruz etengabe egin zaizkion ohar eta eskakizunak gorabehera.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

– Zein ekintzari heldu dio Nafarroako Gobernuak Ega ibaiko ureztatze-ubide batean, San Adriándik hurbil, agertu diren milaka arrain hilak direla-eta? Zeintzuk dira ekintza horien ondorioak?

– Arrainak hiltzea eragin duenari buruzko ikerketarik ireki ote den, eta zer emaitzarekin.

– Ingurugiro Departamentuak zer emendiozko neurri hartu du aurten bestelako kutsadurarik ekiditeko? Zer ondorioekin?

– Nafarroako Gobernuari zer iruditzen zaizkio Nafarroako ibaietan behin eta berriz, berezko ingurua larri kaltetzeraino, gertatzen ari diren kontrolgabeko isurketa horiek?

– Zer diagnostiko egin du Ingurugiro Departamentuak Nafarroako ibaien ingurugiro-egoerari buruz?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 6an.

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

Nafarroan ur jabari publikoan kokaturiko lau eraikuntzari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Nafarroan ur jabari publikoan kokaturiko lau eraikuntzari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Goardia Zibilaren Natura Zaintzeko Zerbitzuak (Seprona) administrazio-agintariei bidali dien txostenean salatu dutenaren arabera, Nafarroan ba omen dira "ur jabari publikoan" kokaturiko lau erai-

kuntza. Legez kanpokoak dira, ustez, eta ibai-ibilguetatik hurbil dauden bideetan omen daude.

Egoera hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du Sepronak salatutako lau eraikuntza horien berri? Hala bada, zeintzuk dira?

2.- Ingurugiro Departamentuak jarduketaren bat aurreikusi al du horri buruz? Hala bada, zeintzuk?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 14an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Itoizko saihebidetako obrei buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Itoizko saihebidetako obrei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xeda-

tuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Komunikabideek argitaratu dutenaren arabera, Itoizko saihebidetako obrak gelditu dira, birkontrataturiko enpresen arazo finantzario baten ondorioz, antza.

Horren aurrean, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zer epe ezarri da Itoizko saihebidetako obrak bukatzeko?

2.- Obren erritmoaren arabera, enpresek beteiko al dituzte Herrilan Departamentuak ezarritako epeak?

3.- Nafarroako Gobernuak eginen al die aurre birkontrataturiko enpresen ordainugabekoei?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 14an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Nafarroako Gobernuak eta RTVE ente publikoak Nafarroako lurralde-zentroaz izenpetu zuten hitzarmena birnegoziatzeari buruzko galdera

MARIA ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Nafarroako Gobernuak eta RTVE ente publikoak Nafarroako lurralde-zentroaz izenpetu zuten hitzarmena birnegoziatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

María Isabel Arboniés Bermejo andreak, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten

Nafarroako Gobernuaren eta Radio Televisión Española ente publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmena bi aldeetako prozesua izan zen, ezaguri nagusi bazterkeria izan zuena, bai Parlamentuari dagokionean –izan ere informaziorik bat ere ez zitzaion bidali– bai RTVENAko Kontseilu Aholku-emaileari dagokionean ere, zeinak ez baitzuen ez aztertu Madrilekin sinatuko ziren akordioak, ez iritiza emateko betarik izan ere.

Eztabaidagai suertatu den akordio horren emaitza izan da modurik ez dela izan erabakitakolari hasiera emateko eta akordio hori behetik birnegoziatu behar izan dela. Arrazoietakoa bat da Lurralde Zentroaren erabilpen eskasa, izan ere hirugarrenei erositako programazioa emitituko

duen zentroa bihurtu nahi dutela, diru publikoaren ekarpenaren bidez bertako produkzioa sustatu beharrean, horrenbestera prestigioa eta entzulego finkatuta duen gure lurralde-zentroaren produkzioa, hain zuzen ere.

Gai hau eta garrantzi handiagoko beste batzuk –entzuleei dagokienez ordutegi lehiakorra izatea, Nafarroari kalteordainak ordaindu behar izatea Madrilek erabakitako deskonexioen ondorioz galduko den programazioarengatik, RTVENaren Kontseilu Aholku-emailearen gomendioak bertako tartetan programazioa eta publizitatea erabakitzeko, eta beste hitzarmen batzuetan Komunitateko berezko hizkuntzak erabiltzeari buruzko klausula sartzea– Batzordeak eta Osoko Bilkurak aztertzeko planteatu zituen gure taldeak, Nafarroaren interesetarako funtsezkoak zirelakoan.

Hori dela eta, jakin nahi da:

1) RTVErekiko Lankidetzaren Hitzarmena birnegoziatzerakoan, aintzat hartuko al da Nafarroako Lurralde Zentroa indartzea, bertako programazioa produzitu dezan?

2) Birnegoziatuko ote da Nafarroako berezko hizkuntzetan emititzeari buruzko klausula bat sartzea euskara zabaltzeko leku bat egon dadin berezko programazioaren tartean?

3) Birnegoziatuko ote da bertako emisio-orduren araberako ordainketa modu bat eta ordutegi entzuleei dagokienean lehiakorragoa?

4) Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileak parte hartuko al du birnegoziaketan horretan?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 19an

Foru Parlamentaria: Isabel Arboniés Bermejo

Nafarroako Autopistaren bidesari berriak ezartzeari eta horren ondorioei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Autopistaren bidesari berriak ezartzeari eta horren ondorioei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997 urtearen bukaeran, Nafarroako Gobernuak "Empresa Nacional de Autopistas" eta "Autopistas de Navarra"rekin akordioa sinatu zuen. Horren bidez, Nafarroako Autopista eraiki, zaindu eta ustiatzeko kontratua aldatu zen.

Hitzartu ziren puntuen artean, ibilgailu arin eta pisuentzat bidesariak jaistea zegoen, eta baita emakida epea beste 15 urte luzatzea ere, hau da, 2029 urteko ekainaren 30era arte.

Aipatu akordioak ere badu Plan Ekonomiko Finantzarioa, leheneratze fondoak hornitzeko kopuruak ezartzen dituen.

Nafarroako Autopistaren bidesari berriak ezartzeari buruz eta horren ondorioei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zer eragin izan du bidesariak jaistea "Sociedad Pública Autopistas de Navarra, SA" enpresaren dirusarreretan?

2. Zein izan da trafikoaren eboluzioa bidesari berriak indarrean sartu zirenetik? 1995, 1996, 1997 eta 1998ko datuak nahi dira.

3. Gaur egun ditugun datuekin, zer eragin izanen duela uste da 1998 urtean zehar Nafarroako Ogasunean bidesari jaitsierak eta erabiltzaile kopuruaren aldatzea?

4. Uste al du Nafarroako Gobernuak bidesariak jaistearekin, errepideko trafikoa autopistara etorri dela?

5. Zer ibilgailu kopuru maila izan ziren 1996, 1997 eta 1998 –orain artekoan– urteetan autopista zati bakoitzean bide bera egiten duten beste errepideekin alderatuz?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 10ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako Autopistari buruzko akordio berrian, erreserba eta leheneratze fondoaren egoera eta eboluzioari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Autopistari buruzko akordio berrian, erreserba eta leheneratze fondoaren egoera eta eboluzioari buruz egindako galderaren

biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997aren bukaeran, Nafarroako Gobernuak "Empresa Nacional de Autopistas" eta "Autopistas de Navarra"rekin akordioa sinatu zuen, horren bidez, 1973an sinatu zuten Nafarroako Autopista eraiki, zaindu eta ustiatzeko kontratua aldatu zen.

Hitzartu ziren puntuen artean, emakida epea beste 15 urte luzatzea zegoen, hau da, emakida 2029 urteko ekainaren 30era arte luzatzea.

Aipatu akordioak ere badu Plan Ekonomiko Finantzarioa; plan horrek erreserba sistema berria ezarri du eta leheneratze fondoak hornitzeko kopuruak finkatu ditu, emakida epe berria kontutan hartuta; halaber, plan horrek autopistan eginiko inbertsio guztia berreskuratzea aurreikusten du, eta zorraren amortizazioa.

Nafarroako Autopistari buruzko akordioan, erreserba eta leheneratze fondoaren egoera eta eboluzioari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zein izan da erreserben (legezkoak, bereziak...) eboluzioa 1996 eta 1997 ekitaldian zehar? Horiei buruz, zer aurreikuspen egin dira 1998 ekitaldirako?

2. Zein izan da leheneratze fondoaren eboluzioa sozietatea "Autopistas de Navarra" sortu zenetik?

3. Sortuta edo sortzekotan dauden erreserben zer eboluzio aurreikusi du Plan Ekonomiko Finantzario berriak?

4. Leheneratze fondoak bazituen helburu batzuk, sortu zen garaian. Zer eboluzio aurreikusi du Plan Ekonomiko Finantzario berriak helburuak lortzeko?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 10ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Ega ibaian, San Adrián herrian, hain zuzen, arrain hiltzea eragin zuen kutsaguneari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Ega ibaian, San Adrián herrian, hain zuzen, arrain hiltzea eragin zuen kutsaguneari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Gure Komunitateko ibaietako azken kutsagunea Ega ibai aldean detektatu da, orain gutxi; San Adrián herrian, hain zuzen. Horren ondorioz, Ingu-rugiro Departamentuaren beraren kalkuluen arabera, 5000ren bat arrain hil dira.

Urte hasieratik hona, Nafarroan, horrelako 8 gertakari izan dira, eta horietakoren bat hemen aipatutakoa baino garrantzitsuagoa.

Ega ibaian, San Adrián herrian, hain zuzen, arrain hiltzea eragin zuen kutsaguneari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da.

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu den gertakariaren berri izan zuenetik? Nola izan zuen Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako kutsaguneari berri?

2. Ba al daki Ingu-rugiro, Lurraldearen Antolamendu, eta Etxebizitza Departamentuak arrainen heriotzaren zergatia? Isuriak izan al dira edo beste zerbait? Zein lekutan izan zen zehazki

kutsagunea? Zer ikerketa egin ditu Nafarroako Gobernuak kutsaguneari buruz?

3. Zer erantzukizun ondoriozta daiteke, aplikagarri den legediaren arabera, kutsagunea eragin zuenarentzat?

4. Ondorio larriak eragin dituela uste al du Nafarroako Gobernuak? Zein da, orain, ibaiaren egoera?

5. Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelakoak berriz ere ez gertatzeko?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 11n

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroan, 1998 urtean zehar, arrainen heriotza eragin duten kutsaguneei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroan, 1998 urtean zehar, arrainen heriotza eragin duten kutsaguneei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Urte hasieratik hona 8 gertakari izan dira, jadanik, zenbait espezieetako arrain ugariren heriotza eragin dutenak gure komunitateko ibaietan; batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak izan dira. Ingurugiro Departamentuak normaltzat jo ditu

denak, eta horietako batzuk zerk sortu zituen ez dakigu oraindik.

Nafarroan, 1998 urtean zehar, arrainen heriotza eragin duten kutsaguneei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zenbait jarduketa egin ditu Ingurugiro Departamentuak, urte hasieratik hona, ibaietatik arrain hilak kentzeko? Jakin nahi da noiz gertatu zen, zein ibaitan, eta zenbat arrain hilak bakoitzean.

2. Zer eragin izan dute gertakari horiek gure ibaietan? Zein kasutan jo daiteke larritzat gertakari horien eragina ingurugiroan? Zein jarduketa egin dira gertakari horietako bakoitzak eragindako kalteak konpontzeko?

3. Zeintzuk eragin dituzte aipatutako gertakariak? Zenbat salaketa egin dira, 1998 urtean zehar, horrelako jarduketei buruzkoak?

4. Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelako gertakari berriz ere gerta ez dadin?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 11n

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Negutegi-efektua eragiten duten gas igorpenak gutxitzeko Parlamentu honek Nafarroako Gobernuari eskatutako jarduketa proiektuari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak negutegi-efektua eragiten duten gas igorpenak gutxitzeko Parlamentu honek Nafarroako Gobernuari eskatutako jarduketa proiektuari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroak, Energia Plan Nazionalaren arabera, gutxi gora-behera, 3.500.000 tona karbono-dioxido (CO₂) bidaltzen ditu atmosferara.

1997 urtearen bukaeran, ingurugiro-ikerketak egiten dituen bulego batek egindako txostenaren arabera, Nafarroa gas kutsakor igorpenak gutxitzeko pezeta bakar bat ere inbertitzen ez duten komunitateen artean dago.

Kyotoko gailurrarekin batera -NBEk deituriko batzarra, non atmosferara igorritako gas kutsakor kopurua arian-arian jaitea hitzartu zen- Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak horrekin zerikusia zuen erabakia onetsi zuen; erabaki horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen zen aurkez zezan jarduketa proiektua negutegi-efektua eragiten duten gas igorpena gutxitzeko.

Mozioa, azkenik, onetsi egin zen 1997ko abenduaren 5ean, eta honelaxe zioen: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, mozio hau onetsi eta eta sei hilabeteko epean, ondoko neurriak bilduko dituen jarduketa-programa aurkez dezan:

1. Eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzeko neurriak.

2. Ibilgailu motordunen energia-eragingarritasuna hobetzeko neurriak.

3. Trena gehiago erabiltzeko sustapen-neurriak, kutsatzen ez duen garraioa baita.

4. Komunitateko lurraldeko oihanak birlantatzeko eta hobetzeko estrategia.

5. Energia berriztagarrien erabilpena sustatzeko neurriak."

Negutegi-efektua eragiten duten gas igorpenak gutxitzeko Parlamentu honek Nafarroako Gobernuari eskatutako jarduketa proiektuari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Energiaren aurrezte-maila hobea lortzearen, Nafarroako Gobernuak jarduketa zehatzik egin du, egiten du edo aurreikusi du? Zein? Laburki adierazi.

2. Nafarroako Gobernuak jarduketa zehatzik egin du, egiten du edo aurreikusi du erabiltzen dituen eraikin handietan, eraikin horien energia-eraginkortasuna hobetzeko bai energia berriztagarriak erabiliz, bai orokorrean energia kontsumoa gutxituz? Egin al du horretarako energi auditorietzarik?

3. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du energia kontsumoa jaitea edo energia berriztagarriak erabiltzea bultzatzen duen jarduketa zehatzen bat, horrela industrien ingurugiro kalitatea hobetzeko?

4. Nafarroako Gobernuak jarduketa zehatzik edo balorazio ikerketarik egin du, egiten du edo aurreikusi du, horrela ibilgailu motordunen energia-eragingarritasuna hobetzeko neurriak ezarri ahal izateko? Eta garraio sektorean?

5. Zer jarduketa ondorioztatu dira Nafarroako Parlamentuak atmosferara CO₂ igorpenak gutxitzeko onetsitako edo onesteko dituen planetatik? Zein planetan dute, gehienbat, eragina jarduketa horiek? Aurrekusi al du Nafarroako Gobernuak aipatutako planetarako beste neurririk proposatzea esandako igorpenak gutxitzeko?

6. Nafarroako Gobernuak jarduketa zehatzik egin du, egiten du edo aurreikusi du energia arlo-

an lan egiten duten profesionalak trebatu eta ardurarazteko? Eta beste biztanle guztientzako?

7. Nafarroako Gobernuak neurtu al du, zehazki edo orokorrean, galdera hauei buruzko jarduketak izanen luketen eragina energiaren arloan, eta horiegatiko gastuak, eta gure komunitatearen CO₂ igorpenak zenbatetan gutxituko lirartekeen?

8. Noizko aurreikusten du bidaltzea Nafarroako Gobernuak ganbara honek onetsitako mozioan eskatzen den proiektua?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 11n

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Naturaren interpretazio zentroen ezartze- eta garatze-mailari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak naturaren interpretazio zentroen ezartze- eta garatze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Nafarroako Aurrekontu Orokorren finantziazioarekin aurrera eramaten dituen programen artean ondokoa dago: naturaren interpretazio zentroak sortu eta abiaraztea.

Europak zentro horiek sortzeko finantziazioa ematen du, 5b eragiketa-programa indarrean dagoen bitartean.

Naturaren interpretazio zentroak kokakuta dauden lekuaren ezaugarriak ikusgarrienak erakusteko dira: ingurune naturala, giza ingurunea, horien jatorri eta eboluzioa, horien elementu fisiko eta ingurune-elementurik aipagarri eta berezikiak, eta guzti hori interpretazioaren ikuspuntutik; horrela, bisitari interesdunak bestela ezagutuko ez litzuzkeen balore eta xehetasunez goza dezake,

eta bisitatzen ari den ingurunearen sorrera-prozesua ere ezagutu dezake.

Naturaren interpretazio zentroen ezartze- eta garatze-mailari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zenbat naturaren interpretazio zentro ezartze aurreikusi du Nafarroako Gobernuak gure komunitatean? Parke naturalen bat izatea edo izanen dela aurreikustea funtsezkoa al da horietako zentro bat proposatu eta horren kokalekua erabakitzekeo?

2. Ba al da horrelako zentroentzat funtzionamendu programaren diseinurik? Erantzuna baiezkoa bada, zeintzuk dira horren oinarriko ezaugarriak?

3. Zein da, gaur egun, zentro hauen ezartze- eta garatze-maila? Noiz abiarazi ziren orain daudenak, eta aurreikusi al da egin diren berriak abiaraztea? Zer denbora programazio dituzte aurreikusitako jarduketak guztiak?

4. Zein izan da, orain arte, zentro horiek ezartzearen kostua? Kostu horren zer zati ordaintzen da Nafarroako Aurrekontu Orokorrekin eta Europako Batasuneko finantziazioarekin? Aurreikusita dagoena ezartzeko zer aurrekontu aurreikusi da? Zer zati dagokio Administrazio bakoitzari?

5. Zer funtzionamendu kostu aurreikusi da zentro horietako bakoitzarentzat? Nola aurreikusi da kostu horiei aurre egitea?

6. Zeintzuk dira zentro horien kokalekuak ezartzeko irizpideak? Kontsultarik egin al zaie aurreikusita dauden zentroak izanen dituzten toki entitateei? Erantzuna baiezkoa bada, zein entitateri eta zein zentrotarako?

7. Oraindik ezartzeko dauden naturaren interpretazio zentzuetan dagokionean, hona hemen galderak: Erabakita al daude horien kokalekuak? Zeintzuk dira erabaki hori hartzeko irizpideak? Toki entitateek eskaintzen al dute lekuri horiek ezartzeko? Onetsi al da, formalki, eskaintza horie-

takoren bat? Zein izan dira eskaintza horiek onetsi edo baztertzeko arrazoiak?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 13an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Euskal Autonomia Erkidegoan trafikoa arautzeko neurri bereziak indarrean egoteak gure komunitatean duen eraginari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Euskal Autonomia Erkidegoan trafikoa arautzeko neurri bereziak indarrean egoteak gure komunitatean duen eraginari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduari 184. artikulua eta ondoko xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997ko martxoaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 1997ko urtean zehar trafikoa arautzeko neurri bereziak argitaratu ziren, Bidezaingo eta Ibilgailuen zuzendariak emanak.

Neurri horiek, bideetako segurtasunak eta zirkulazioaren arintasunak hala eskatzen dutelako, ibilgailu handientzako mugak ezartzen dituzte: ibilgailu horiek ezin dute ibili igande eta jaiegunetan 00:00etatik 24:00ak arte. Soilik bidaia Euskal Autonomia Erkidegoan hasi eta bukatzen duten ibilgailu pisuak zirkulatu ahalko dute aipatutako egunetan.

1997an, sarritan gertatu ziren ibilgailu pisuen pilaketa gogaikarriak, gehienbat, Iruñea eta Frantzia batzen dituen N-121 A errepidean. Trafiko gehitze horren arrazoiak ondokoa da: penintsulako komunikazio bideetatik zetozen garraiolariek,

orain arte, Hendaiatik sartzen ziren Europako autopista sarera, eta arautegi berriarekin, gure komunitatearen barna egitea erabaki dute.

Garraio arloko patronalek ere jakinarazi dute beren haserrea neurri horiek direla-eta; halaber, irtenbideak eskatu dituzte, neurri horiek sektorea ez dezaten kaltetu.

Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak esan zuen, jada, ondoko hau: "Neurri horiek ibilgailu pisuen trafiko oso handia eragiten ari dira Nafarroako errepideetan, eta horrek segurtasun arazoak eragiten ditu, errepedeak estuak baitira eta bihurtzeko asko baitago; eta, zirkulazio zaileko mendateak eta trafiko sahisbiderik ez duten herriak zeharkatzen dira".

Frantziako hiru udalek, hain zuzen ere, Ainhoa, Ezpeleta eta Zuraidek, orain gutxi, bi hilabete kamioiak pasatzea mugatu egin dute; ekidin egin nahi dute Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatutako arautegia eta horren ondorioak.

Debekua saihestu eta mugaz bestaldera pasabideren bat aurkitzeak, Frantziako herri horien arau berriak kontutan harturik, dakarrena da trafikoa Arnegiko mugara joatea; horrek arazoak dakartza Nafarroako zenbait herritan, gehienbat Luzaiden, eta han bizi direnek jakinarazi dute, jada, beren haserrea.

Kontutan izanda komenigarria litzatekeela autonomi erkidegoek antzeko neurriak ezartzea aipatutako ibilgailuen zirkulaziorako –horrela, gerta daitezkeen diskriminazioak ekiditeko, eta enpresa eta garraiolariei ere kalteak ekiditeko, bai Nafarroan, bai orokorrean– eta jakinda merkantzia garraioaren sektoreak, gehienbat, Europako Bata-sunean egiten duela lan, European, bateratutako arautegia behar da. Bestela, koordinaziorik gabe, aipatu diren neurriek jada nahiko arazo dituen sektorea desegin dezakete.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan trafikoa arautzeko neurri bereziak indarrean egoteak gure komunitatean duen eraginari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Ezarri al du Nafarroako Gobernuak kontrol neurriren bat arau horiek gure komunitatean dituen eraginak ezagutu eta baloratzeko? Baiezkoan, zer nolako neurriak? Noiztik ezarri dira ?

2.- Ba al du Nafarroako Gobernuak daturik zer trafiko kopuru zegoen, Nafarroan, Euskal Autonomia Elkarteko debekua indarrean sartu aurretik? Baiezkoan, ondoko datuak eskatzen dira: Iruñea-Frantzia eta Iruñea-Gasteiz autobietakoak eta baita gure komunitatea eta Frantziaren arteko pasabideetakoak.

3.- Izan al du Nafarroako Gobernuak bilerarik gure komunitateko garraiolari elkarteekin, hitz egin eta aztertzeke aipatutako neurriak gure komunitatean izan duten eragina? Zein da elkarte horien iritzia eta zer eskaera dituzte?

4.- Aurreko galderetan aipatutakoez gain, zer jarduketa egiten hasi da Nafarroako Gobernu egoera horri aurre egiteko?

5.- Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoko Bidezaingo eta Ibilgailuen zuzendariak ezarritakoaren antzeko neurriren bat ezartzea?

6.- Eskatua al du Nafarroako Gobernuak bilera edo kontakturen bat Sustapen Ministerioarekin edo Barne Ministerioarekin, egoera aztertzeke edo aipatu ditugun arazoak konpontzeke?

7.- Zer emaitza praktiko izan ditu 1997ko maiatzaren 6an, Lakuan izandako bilerak, hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuko Barne zuzendaria, eta Garraio eta Telekomunikazio zuzendaria eta Eusko Jaurjaritzaren Herrizaingo Saileko Bidezaingo eta Ibilgailuen zuzendariaren artean, non hitzartu zen informazioa trukitzea eta arazoak erkidego bakoitzean zuen eboluzioaren jarraipena batera egitea?

8.- Zein jarduketa koordinatu egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta Nafarroako Foru Administrazioaren artean, aurreko galderan aipatutako bileraren ondorioz?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 14an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Esnearen eta esnekien Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzazkeen eraginei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak esnearen eta esnekien Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzazkeen eraginei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nekazaritza Politika Komuna aldatzeko Agenda 2000k irekitako prozesuaren ondorioz, Europako Batzordeak onetsi egin ditu zenbait produkzio sektoretako Merkatuaren Antolamendu Amankomunak aldatzeko behin-betiko proposamenak, eta horiekin batera egitura-politikaren erreformari dagokienak eta 2000-2006 epealdirako aurreikuspen finantzarioak.

Esnearen eta esnekien Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak eragin handia izan dezake abeltzaintzaren etorkizunean eta baita nekazaritzako elikagaien industrian ere.

Sektoreko ordezkari guztien hasiera bateko irizpenak proposamen horien kontrakoak izan

dira. Horrela, esnearen eta esnekien Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzazkeen eraginei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zer eragin izanen duela uste du Nafarroako Gobernuak sei kuota epeko araubidea luzatzeko Europako batzordeak eginiko proposamenak eta 4 lehenengo urteetan arian arian kuotak gehitzeko Batzordeak egin proposamenak, nahiz eta, hasieran, Agenda 2000n ez horrela agertu?

2. Zer eragin izanen du gure komunitatean Europako Batzordearen irizpide aldaketak, hain zuzen ere, eskuhartze prezioak %10 jeistetik %15 jaisteari buruz, 2000ko uztailearen 1etik 2003ko uztailearen 1eraino?

3. Uste al du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak "alegiatzko" behi bakoitzagatik urteroko laguntzak eta esnebehi haragiagatik Europako Batzordeko proposamenean ezarritako konpentsazioak konpentsatuko dutela esnearen prezioan aurreikusi den jaitsiera?

4. Zer eragin aurreikusten da izanen duela, Nafarroan, Europako Batzordeak ezarritako behi bakoitzagatik gehienezko prima guztikoak –horrela, kuota eta ustipenaren azalera erlazionatu dira lehenengo aldiz–?

5. Izan al da bilerarik Nafarroako Gobernua eta Nazioko Gobernuaren artean prima gehigarrien kopurua ezartzeko eta, halaber, aurreikusitako asignazio kuotak ezartzeko?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 17an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Haragitarako behiaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzazkeen eraginei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak haragitarako behiaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzazkeen eraginei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nekazaritza Politika Komuna aldatzeko AGENDA 2000k irekitako prozesuaren ondorioz, Europako Batzordeak onetsi egin ditu zenbait produkzio sektoretako Merkatuaren Antolamendu Amankomunak aldatzeko behin-betiko proposamenak, eta horiekin batera egitura politikaren erreformari dagokienak eta 2000-2006 epealdirako aurreikuspen finantzarioak.

Haragitarako behiaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak eragin handia izan dezake abeltzaintzaren etorkizunean, ordainketetan izanen baitu eragina eta baita salneurri instituzionalen jaitsiera handian ere, eta azken

horrek, berriz, ganadu biziaren eta hazkuntzarako txahalen kotizazioan.

Sektoreko ordezkari guztien hasiera bateko irizpenak proposamen horien kontrakoak izan dira. Horrela, haragitarako behiaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzazkeen eraginei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zer eragin izanen duela uste du Nafarroako Gobernuak salneurri instituzionalak, 2000ko uztailaren 1etik aurrera, hiru urtetan zehar, urtero %10 jeisteak, horrela %30 jeisteko?

2. Zer eragin izanen du gure komunitatean eskuhartze publikoko araubidea kentzeak eta, horren truke, aldi baterako biltze pribatua ezartzeak?

3. Uste al du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elidakura Departamentuak ekoizleei emanen zaien laguntza zuzenak -Agenda 2000n aurreikusitako mugarekin- konpentsatuko duela aurreikusten den prezio jaitsiera?

4. Zer eragin aurreikusten da izanen dutela, Nafarroan, Europako Batzordeak ezarritako produkzio egoeretako gehinenzko mugek, ordainketak bi zatitan egitea erabaki ondoren?

5. Izan al da bilerarik Nafarroako Gobernu eta Nazioko Gobernuaren artean ordainketa gehigarrietarako kopuru finantzario osoen banaketa ezartzeko?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 17an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Bidasoa ibaiaren ingurunean lurzoruen kutsadura kontrolatu eta jarraitzeko jarduketan emaitzei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Bidasoa ibaiaren ingurunean lurzoruen kutsadura kontrolatu eta jarraitzeko jarduketan emaitzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1995eko urte bukaeran eginiko hasierako lanen ondoren, "Bidasoa ibaiaren inguruko lurzoru kutsatuen kontrol eta kutsadura jarraipenari buruzko ikerlana" egin zen. Nafarroako Gobernu-ko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak arlo horretan espezializatutako enpresa baten ardurapean jarri zuen lana.

Kontratatu zen aipatutako ikerlanaren xedea hau zen: ahalik eta daturik gehien izatea, ikerlanerako hasierakoa baino epea luzeagoa izanda, horrela Katazpegi eta Eskolamendi kokaguneen funtzionamendu hipotesiak zehaztearren; aldi berean, hauxe ere ebaluatu nahi zen: aipatutako

kokaguneek zer nolako ingurugiro-eragina izanen luketen Bidasoa ibaiaren ingurunean bai ibaiaren urretan, bai sedimentuetan eta faunan.

Ikerlanak uren kontrol eta jarraipenerako hamaika kanpainen emaitzak aurkeztu eta ebaluatzen ditu, eta ondorio gisa epe motzerako zenbait proposamen aurkezten ditu: horien xedea, diagnostikoa kontutan hartu eta jarduketak proposatzea ur-ekosistemara botatzen den kutsadura gutxitzeko.

Bidasoa ibaiaren ingurunean lurzoru kutsatuen kontrol eta kutsadura jarraipenari buruzko jarduketan emaitzei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zer emaitza izan ditu laginketa biologikoak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak 1998ko udaberrian amaitzea aurreikusita zuenak? Somatu al da kalterik leku horretako faunan?

2. Zer neurri proposatzen dira laginketa biologikoa amaitu ondoren, aipatutako hasierako ikerlanean identifikaturiko arriskuak -laginketa biologikoarekin konfirmatzeko daudenak- gutxitzeko?

3. Zein izan da laginketa biologiko egiteko aukeratutako sistema? Zergatik?

4. Zein izan da ikertutako espezie kopurua? Bidasoa ibaian eta urak horra isurtzen dituzten erreketan, zein puntu zehazetan egin dira laginketak?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 10ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, zuzendu eta kontrolatzeko inbertsioetarako 1997ko dirulaguntzei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, zuzendu eta kontrolatzeko inbertsioetarako 1997ko dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

168/1997 Foru Dekretuak, industri jarduerak ingurugiroaren gainean duen eragina dela eta, aurrera hartu, zuzendu eta kontrolatzeko inbertsioetarako dirulaguntzake arautzen dituenak, berri egin zituen 4/1982 Dekretua (atmosfera-uren eta ingurugiroaren kutsadura ekiditeko inbertsioei dirulaguntzak arautzen zituena) eta 186/1991 Dekretua (industrietan ingurugiro auditoretzak egiteko laguntzak arautzen zituena).

Beraz, aipatutako foru dekretuaren xedea da Nafarroako industri kutsadura kontrolatu, zuzendu eta aurrea hartzeko neurriak paratzeko egiten diren inbertsioetarako dirulaguntzak arautzea.

1997 urtean, industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, txikiagotu eta zuzentzeko dirulaguntzei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zer arategi (foru lege, dekretu eta agindu) zaio aplikagarri kontusail horren erabilerari? Zer aurrekontu lerrok finantziatu zituen 184/1997 Foru Dekretuak emandako dirulaguntzak?

2. Handitu al zen, foru agindu edo ebazpenen bidez, aurreko galderan aipatutako aurrekontu-kontsignazioa 1997ko ekitaldian erabili den diru kopururaino? Baiezkoan, zein izan dira hasieran aurrekontuan agertzen zen kopurua eta azkenik erabili dena?

3. Zeintzuk izan dira 1. artikuluko 2. puntuan agertzen diren mota bakoitzerako emaniko dirulaguntzak? Zera nahi da: dirulaguntza eskatu zen eguna, hori eskatu zuen enpresa edo erakunde onuradunaren izena, jarduketaren laburpena, eta jarduketa egiten den herriaren izena.

4. 7 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, jakinarazi al zaio Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari gertakariren bat, dirulaguntza jaso zuen proiektua modu aipagarrian aldatu duena? Baiezkoan, onartu al ditu espresuki Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako aldaketak? Zehaztu espedienteak eta eginiko aldaketak.

5. 1997ko ekitaldian, hartu al da aurrekontu konpromisorik hurrengo urteetarako? Baiezkoan, zera nahi da: espedienteak, zenbatekoak eta urte bakoitzerako konpromisoa.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 19an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, zuzendu eta kontrolatzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, zuzendu eta kontrolatzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Industri jarduerak ingurugiroaren gainean duen eragina dela-eta, aurrea hartu, zuzendu eta kontrolatzeko inbertsioetarako dirulaguntzak arautu zituen 168/1997 Foru Dekretuaren arabera, eta dekretu horretako 4.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak 185/1998 Foru Agin-

duaren bidez, zera onetsi zuen: Nafarroan industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, txikiagotu eta zuzentzeko urteroko dirulaguntza deialdia.

Gastuaren finantziazioa "Kutsadura aurreikusi eta zuzentzea" kontusailearen kargu izanen da, eta gehenez ere 90 milioi pezetako kopurua izanen du; eskabideak aurkezteko epea aurreko maiatzaren 31n amaitu zen.

Industri jardueraren ingurugiro eragina kontrolatu, zuzendu eta aurrea hartzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zeintzuk izan dira 1. artikuluko 2. puntuan agertzen diren mota bakoitzerako dirulaguntza eskaerak? Zera nahi da: dirulaguntza eskatu zen eguna, hori eskatu zuen enpresa edo erakunde onuradunaren izena, jarduketaren laburpena, eta jarduketa egiten den herriaren izena.

2. 1998ko ekitaldirako, gehitu al da aurreko urteetan hartutako aurrekontu konpromisorik? Baiezkoan, zera nahi da: espedienteak, zenbatekoak eta urte bakoitzerako konpromisoa.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 19an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Abeltzaintza ustiategien ingurugiro eragina aurreikusi, gutxitu eta zuzentzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak abeltzaintza ustiategien ingurugiro eragina aurreikusi, gutxitu eta zuzentzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Abeltzaintza ustiategiak ingurugiroan duten eragina aurreikusi, txikiagotu eta zuzentzeko dirulaguntzak arautu zituen 184/1997 Foru Dekretuaren arabera, eta dekretu horretako 4.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak

184/1998 Foru Aginduaren bidez, zera onetsi zuen: Nafarroan abeltzaintza ustiategiak ingurugiroan duten eragina aurreikusi, txikiagotu eta zuzentzeko urteroko dirulaguntza deialdia.

Gastuaren finantziarioa "Kutsadura aurreikusi eta zuzentzea" kontusailearen kargu izanen da, eta gehienez ere 30 milioi pezetako kopurua izanen du; eskabideak aurkezteko epea aurreko maiatzaren 31n amaitu zen.

abeltzaintza ustiategien ingurugiro eragina kontrolatu, zuzendu eta aurrea hartzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zeintzuk izan dira 1. artikuluko 2. puntuan agertzen diren mota bakoitzerako dirulaguntza eskaerak? Zera nahi da: dirulaguntza eskatu zen eguna, hori eskatu zuen enpresa edo erakunde onuradunaren izena, jarduketaren laburpena, eta jarduketa egiten den herriaren izena.

2. 1998ko ekitaldirako, gehitu al da aurreko urteetan hartutako aurrekontu konpromisorik? Baiezkoan, zera nahi da: espedienteak, zenbatekoak eta urte bakoitzerako konpromisoa.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 19an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Abeltzaintza ustiategien ingurugiro eragina aurreikusi, gutxitu eta zuzentzeko inbertsioetarako 1997ko dirulaguntzei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak abeltzaintza ustiategien ingurugiro eragina aurreikusi, gutxitu eta zuzentzeko inbertsioetarako 1997ko dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

184/1997 Foru Dekretuak, abeltzaintza ustiategiek ingurugiroaren gainean duen eragina dela eta, aurrea hartu, zuzendu eta kontrolatzeko inbertsioetarako dirulaguntzak arautzen dituenak, eta halaber abeltzaintza ustiategi guztiei, lehendik daudenei zein berriei, higiene eta osasunaren aldetik eta ingurugiroari begira eskatu ahal zaizkien neurriak ezarri zituen.

Beraz, aipatutako foru dekretuaren xedea da abeltzaintza ustiategiek eragindako kutsadura kontrolatu, zuzendu eta aurrea hartzeko neurriak paratzeko egiten diren inbertsioetarako dirulaguntzak arautzea.

1997 urtean, abeltzaintza ustiategiek ingurugiroan duen eragina aurreikusi, txikiagotu eta zuzentzeko dirulaguntzei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zer arautegi (foru lege, dekretu eta aginduak) zaio aplikagarri kontusail horren erabilerari? Zer aurrekontu lerrok finantziatu zituen 184/1997 Foru Dekretuak emandako dirulaguntzak?

2. Handitu al zen, foru agindu edo ebazpenen bidez, aurreko galderan aipatutako aurrekontu-kontsignazioa 1997ko ekitaldian erabili den diru kopururaino? Baiezkoan, zein izan dira hasieran aurrekontuan agertzen zen kopurua eta azkenik erabili dena?

3. Zeintzuk izan dira 1. artikuluko 2. puntuan agertzen diren mota bakoitzerako emaniko dirulaguntzak? Zera nahi da: dirulaguntza eskatu zen eguna, hori eskatu zuen enpresa edo erakunde onuradunaren izena, jarduketaren laburpena, eta jarduketa egiten den herriaren izena.

4. 7. b artikuluan ezarritakoaren arabera, jakinarazi al zaio Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari gertakariren bat, dirulaguntza jaso zuen proiektua modu aipagarrian aldatu duena? Baiezkoan, onartu al ditu espresuki Foru Komunitateko Adminstrazioak aipatutako aldaketak? Zehaztu espedienteak eta eginiko aldaketak.

5. 1997ko ekitaldian, hartu al da aurrekontu konpromisorik hurrengo urteetarako? Baiezkoan, zera nahi da: espedienteak, zenbatekoak eta urte bakoitzerako konpromisoa.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 19an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

1997an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak 1997an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Toki Administrazio Kontseilariak, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko Foru Legearen 20. artikuluari jarraituz, eta baita foru lege hori garatzen duen erregelamenduari, 83/1996 Foru Agindua onetsi zuen, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak har daitezten dirulaguntzak emateko arautegia ezartzen duena.

Foru Aginduaren helburua zera zen: dirulaguntzak eman isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko. Horretarako finantziarioa Navarra de Infraestructuras Locales, SAK (NILSA) eman zuen Nafarroako Ur Hondakinen Saneamendurako Plan Zuzentzailearen baliabideen kargura, betiere urteko programan ezarritako mugarekin.

NILSAren Administrazio Kontseiluak, 1996ko abenduaren 17an eginiko bilkuran, 1998rako Jar-

duketa Programa onetsi zuen, eta 125 milioi kontsignatu zituen erakunde pribatuentzako dirulaguntzetarako.

1997an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Handitu al zen, foru agindu edo ebazpenen bidez, aurreko galderan aipatutako aurrekontu-kontsignazioa 1997ko ekitaldian erabili den diru kopururaino? Baiezkoan, zein izan dira hasieran aurrekontuan agertzen zen kopurua eta azkenik erabili dena?

2. Zeintzuk izan dira 1. artikuluko 2. puntuan agertzen diren mota bakoitzerako emaniko dirulaguntzak? Zera nahi da: dirulaguntza eskatu zen eguna, hori eskatu zuen enpresa edo erakunde onuradunaren izena, jarduketaren laburpena, Ingurugiro Zerbitzuak txosten loteslea egin zuen eguna, dirulaguntza eman zen eguna, dirulaguntzaren zenbatekoa, eta jarduketa egiten den herriaren izena.

3. 1. artikulua 6. puntuan ezarritakoari jarraituz, igorri al du Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro Zerbitzuak txostenik dirulaguntzak jaso zituzten onuradun bakoitzari buruz? Baiezkoan, zenbat txostenek eragin dute proposatutako proiektua aldatzea edo emaniko dirulaguntza baliogabetzea? Zehaztu espedientea eta eginiko aldaketak.

4. 1997ko ekitaldian, hartu al da aurrekontu konpromisorik hurrengo urteetarako? Baiezkoan, zera nahi da: espedienteak, zenbatekoak eta urte bakoitzerako konpromisoa.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 19an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

1998an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak 1998an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Toki Administrazioako Kontseilariak, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko Foru Legearen 20. artikuluari jarraituz, eta baita foru lege hori garatzen duen erregelamenduari, 83/1996 Foru Agindua onetsi zuen, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak har daitezkeen dirulaguntzak emateko arautegia ezartzen duena. Gero, 200/1998 Foru Aginduaren bidez, onuradunek eginiko inbertsio edo jarduketaren sailkapena eman zen eta, baita, zenbatekoa 1996ko arautegiarekin bat ez zetozen dirulaguntzentzarako.

Foru Aginduaren helburua zera zen: dirulaguntzak eman isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko. Horretarako finantziazioa Navarra de Infraestructuras Locales, SAK (NILSA) eman zuen Nafarroako Ur Hondakinen Saneamendurako Plan Zuzentzailearen baliabideen kargura, betiere urteko programan ezarritako mugarekin.

NILSAren Administrazio Kontseiluak, 1996ko abenduaren 17an eginiko bilkuran, 1998rako Jarduketa Programa onetsi zuen, eta 125 milioi kontsignatu zituen erakunde pribatuentzako dirulaguntzetarako.

1998rako deialdiaren arabera, eskaera epea aurreko uztailaren 31n amaitu zen:

1998an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zeintzuk izan dira 1. artikuluko 2. puntuan agertzen diren mota bakoitzerako dirulaguntza eskaerak? Zera nahi da: dirulaguntza eskatu zen eguna, hori eskatu zuen enpresa edo erakunde onuradunaren izena, jarduketaren laburpena, eta jarduketa egiten den herriaren izena.

2. 1998ko ekitaldirako, gehitu al da aurreko urteetan hartutako aurrekontu konpromisorik? Baiezkoan, zera nahi da: espedienteak, zenbatekoak eta urte bakoitzerako konpromisoa.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 19an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Zangoza, Etxarri-Aranatz eta Elizondo eskualdeetako emakumeen osasun laguntzari buruzko galdera

MARIA ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Zangoza, Etxarri-Aranatz eta Elizondo eskualdeetako emakumeen osasun laguntzari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

María Isabel Arboniés Bermejo andreak, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten

Guztiok ezagutzen ditugu udan infekzio ginekologikoen izaten duten eragin handiari buruzko datuak. Urteko sasoi horretan, emakumeek infekzioak harrapatzeko arrisku handiagoa dute beroa-rengatik eta hondartza eta igerilekuetara joaten direlako.

Infekzio horiek, datuen arabera, emakumeen ehuneko 10etik ehuneko 40ra bitartean kutsatzen dituzte, adina, diabetesa, antibiotikoak eta sexu jarduera bezalako inguruabarren ondorioz. Garrantzi handia du espezialistarengana berehala joateak alde aurreko diagnostikoa egin eta tratamendu erraz bat eman dezan.

Nafarroako emakumeentzako laguntzaren eskualdeko banaketak landa-guneetatik hurbilago jarri ditu ginekologia zerbitzuak, baina beste zentro batzuetara joateko lehen zegoen askatasuna ere mugatu du.

Zangoza, Etxarri-Aranatz eta Elizondoko Emakumeen Laguntza Zentroek ginekologo eta emagin edo OTL bana dituzte. Ondokoak dira zentro horiek atenditzen dituzten emakumeen kopuruak: 6.127 Zangozako azpiunitatean, 11.283 Etxarri-Aranatzko azpiunitatean eta 9.375 Elizondoko azpiunitatean.

Emakumeentzako laguntza eskualdeka banatzeko orduan, funtsezkoa da eskualde horietako behar guztiak eta sexu-osasunari buruzko alderdi guztiak ongi beteta uztea modu iraunkorrean. Une hauetan, Zangozako azpiunitatean ginekologoa eta emagina biak daude oporretan.

Hori dela eta, jakin nahi da:

1. Nola antolatzen da hiru eskualde horietako (Zangoza, Etxarri-Aranatz eta Elizondo) emakumeen osasun laguntza udan zehar? Ordezkapenik egiten al da edo langilerik gabe gelditzen ote dira Zangozako kasuan bezala?

2. Sexu-osasunari eta jaiotzeen kontrolari dagokienez, prestatu al daude azpiunitate horiek umetoki barneko gailuak dispensatu eta kontrolatzeko, edo Iruñeko beste zentro batzuetara bidaltzen ote dira gaixoak?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 21ean

Foru Parlamentaria: María Isabel Arboniés Bermejo

1998an, kalitatea, diseinua eta konpetibitatea hobetzeko dirulaguntzei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak 1998an, kalitatea, diseinua eta konpetibitatea hobetzeko dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak, 1998ko otsailaren 17ko Foru Aginduen bidez, kalitatea, diseinua eta konpetibitatea hobetzeko dirulaguntzetarako deialdia onetsi zuen.

Laguntza horiek 208/1991 Foru Dekretuaren barruan daude, Nafarroan kokatuta dauden

enpresen lehiakortasuna sustatzeko laguntzen esparrua ezarri baitu horrek.

Laguntzak jasoko zituzten jarduera eta proiektuak azaldu ziren aipatutako foru aginduaren I. eta II. eranskinetan.

1998ko deialdiaren arabera, eskaera epea aurreko maiatzaren 30ean amaitu zen:

1998an, kalitatea, diseinua eta konpetibitatea hobetzeko dirulaguntzei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zeintzuk izan dira deialdiaren I. eta II. eranskinetan agertzen diren jarduera bakoitzerako dirulaguntza eskaerak? Zera nahi da: dirulaguntza eskatu zen eguna, hori eskatu zuen enpresa edo erakunde onuradunaren izena, jarduketaren laburpena, eta jarduketa egiten den herriaren izena.

2. 1998ko ekitaldirako, gehitu al da aurreko urteetan hartutako aurrekontu konpromisorik? Baiezkoan, zera nahi da: espedienteak, zenbatekoak eta urte bakoitzerako konpromisoa.

3. Aldatu al dira laguntza horiek jaso ditzaketen jarduketa, proiektu eta urterako konpromisoak? Zein kasutan? Zein arrazoiengatik?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 21an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroan kokatuta dauden enpresen jarduerak eragindako ingurugiro hondaketari aurrea hartzeko egin den dirulaguntzen kontzesioari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroan kokatuta dauden enpresen jarduerak eragindako ingurugiro hondaketari aurrea hartzeko egin den dirulaguntzen kontzesioari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak, 1997ko ekainaren 12an, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren foru agindua onetsi zuen; horren bidez, kalitatea, diseinua eta konpetitibitatea hobetzeko laguntzetarako deialdia egin zen, eta, horrela, garatu egin zen maiatzaren 23ko 208/1991 Foru Dekretua, enpresen konpetitibitatea sustatzeko dirulaguntzen markoa zehazten duena. Foru agindu horrek fondo galdurako laguntzak ematen ditu, %70ekoak izatera hel daitezkeenak, produkzio prozesuak berak sor dezakeen ingurugiro hondaketari aurrea hartzeko azterlanak egiteko.

Galdera hau egin da, 1997ko aurrekontu ekitaldian, Nafarroan kokatuta dauden enpresen jarduerak eragindako ingurugiro hondaketari aurrea hartzeko egin den dirulaguntza kontzesioa ahal den zehatzen ezagutzeko. Beraz, hauetxek jakin nahi dira:

1. Laguntza horiek finantziatzen dituen aurrekontu lerroari buruz, zera eskatzen da: lerro zenbakia, kontusailaren izena, zein programa eta aurrekontu proiekturi dauden atxikirik, sailkapen organiko, ekonomiko eta funtzionala, eta baita, orokorrean, lerroak izan zuen kreditu erabilgarria.

2. Aurreko galderan aipatutako kreditu erabilgarritik ingurugiroaren hondaketari aurrea hartzera zuzendatutako zenbatekoa.

3. 1997ko ekitaldian erabilgarria izan den zenbatekoa osatu arte egin diren kreditu handitzeak bai foru agindu eta ebazpenen bidez, bai aurrekontutik kanpoko ekarpen edo finantziazioaren bidez.

4. 1997ko ekitaldian erabilgarria izan den zenbateko osoaren desglosea, kreditu erabilgarria edo 1996ko ekitaldian konprometitu izateagatik.

5. Enpresen jarduerak eragindako ingurugiro hondaketari aurrea hartzeko eman diren dirulaguntzen zerrenda, eta ondoko xehetasunak: eskaera eguna, eskaera egin zuen enpresa, erakunde edo instituzioa, laguntzak jaso dituzten jarduketaren azalpen laburra, eta laguntzen zenbatekoa.

6. 1998 eta 1999rako hartutako gastu konpromisoa, eta egun izapidatzen ari diren espedienteak edo aurreko urteetan izapidatu direnak.

7. Galdera honetan aipatzen den foru aginduari buruz, zera jakin nahi da: Nafarroako enpresei emandako laguntzak, guztira; eta hori, aipatutako dekretuaren I. eta II. eranskinetan agertzen diren jarduera eta lanen arabera sailkatuta, eta ondoko xehetasunekin: laguntzak jaso dituzten jarduketaren azalpen laburra eta horien zenbatekoa.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 21ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Hondatutako eremuak leheneratu eta ingurugiro eraginak zuzentzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak hondatutako eremuak leheneratu eta ingurugiro eraginak zuzentzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan sartu zuten 90037-1 aurrekontu lerroa; lerro horri ondoko kontusailari dago-kio: "Hondatutako eremuak leheneratzea eta ingurugiro eraginaren zuzenketa".

Kontusail hori "Ingurugiroaren kudeaketa (30000)"ren barnean dago, "Ingurugiroaren kudeaketa (30)" programan. Kontusail horren klasifikazio organikoa 31120 da, ekonomikoa 6019 eta funtzionala 4421.

Galdera hau egin da, 1997ko aurrekontu ekitaldian kontusail horren erabilera ahal den zehatzaren ezagutzeko.

Hondatutako eremuak leheneratzeari buruz eta ingurugiro eraginaren zuzentzeari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Kontusail horren erabilera arautzerakoan aplikagarri zaizkion lege, dekretu eta foru aginduen zerrenda.

2.- 1997ko ekitaldian, kontusail horrek izan duen zenbatekoa osatu arte egin diren kreditu handitzeak bai foru agindu eta ebazpenen bidez, bai aurrekontutik kanpoko ekarpen edo finantziazioaren bidez (beste instituzio batzuen laguntzak...).

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarria izan den zenbateko osoaren desglosea, kreditu erabilgarria edo 1996ko ekitaldian konprometitua izateagatik.

4.- Kontusail horren kargura eginiko jardueren zerrenda. Zera eskatzen da: proiektuak, jarduketak, etab., eta horiei buruzko ondoko xehetasunak: hasiera eguna, jarduketa egin duen edo egiten ari den enpresa, entitate edo instituzioa, jarduketaren azalpen laburra, bukaera eguna, aurrekontu kostua eta aipatutako jarduketak egiten diren herriak.

5.- 1997 eta 1998rako hartutako gastu konpromisoa, eta ekitaldi honetan izapidatutako espedienteak.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 22an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Lurzoruak deskontaminatzeko egindako jarduketei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak lurzoruak deskontaminatzeko egindako jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan sartu zuten 11320-5 aurrekontu lerroa; lerro horri ondoko kontusailari dago-kio: "Lurzoruen deskontaminazioa".

Kontusail hori "Ingurugiroaren kudeaketa (30000)"ren barnean dago, "Ingurugiroaren kudeaketa (30)" programan. Kontusail horren klasifikazio organikoa 31120 da, ekonomikoa 6019 eta funtzionala 4421.

Galdera hau egin da, 1997ko aurrekontu ekitaldian kontusail horren erabilera ahal den zehazten ezagutzeko.

Lurzoruak deskontaminatzeko egindako jarduketei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Kontusail horren erabilera arautzerakoan aplikagarri zaizkion lege, dekretu eta foru aginduen zerrenda.

2.- 1997ko ekitaldian, kontusail horrek izan duen zenbatekoa osatu arte egin diren kreditu handitzeak bai foru agindu eta ebazpenen bidez, bai aurrekontutik kanpoko ekarpen edo finantziazioaren bidez (beste instituzio batzuen laguntzak).

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarria izan den zenbateko osoaren desglosea, kreditu erabilgarria edo 1996ko ekitaldian konprometitua izateagatik.

4.- Kontusail horren kargura eginiko jardueren zerrenda. Zera eskatzen da: proiektuak, jarduketak, etab., eta horiei buruzko ondoko xehetasunak: hasiera eguna, jarduketa egin duen edo egiten ari den enpresa, entitate edo instituzioa, jarduketaren azalpen laburra, bukaera eguna, aurrekontu kostua eta aipatutako jarduketak egiten diren herriak.

5.- 1997 eta 1998rako hartutako gastu konpromisoa, eta ekitaldi honetan izapidatutako espedienteak.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 22an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Lurzati berrantolamenduaren prozesuari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak lurzati berrantolamenduaren prozesuari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Inork ez du zalantzan jartzen lurzati berrantolamenduak duen garrantzia abelur sektorearen produkzio estrukturak hobetzeko, eta ezta ere prozesu horren konplexutasuna, gai horrek ezagarriz ezberdinak dituen alde asko baititu; horrela, dezente atzerapena ematen da prozesu hori burutzeko aurreikusitako epeetan.

Konplexutasun horrek zaildu egiten du, baita talde parlamentarioentzat ere, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak egindako jarduketak jarraitzea.

Beraz, honako galdera hau egin da sakonki jakiteko izapidatzen ari diren lurzati berrantolamendu prozesuen gaur egungo egoera; horrela, gure talde parlamentarioak informazio zehatza jaso nahi du, nahitaezkoa baitzaigu Nafarroako Gobernuak lurzati berrantolamenduaren arloan egiten ari den jarduera baloratzeko.

Horiek horrela, 1998ko ekainaren 30ean lurzati berrantolamendu prozesua, jada, hasia den eremu bakoitzari buruz, ondoko puntuei buruzko informazioa eskatzen da:

1.- Eremuaren izena eta zein udal-dermiotan dagoen.

2.- Eremua 5b helburuan dagoen ala ez.

3.- Ureztalurraren ala sekain lurraren berrantolamendua den.

4.- Lurzati berrantolamendu prozesuan dagoen eremuaren azalera.

5.- Jabe kopurua.

6.- Nagusiki nekazariak direnen kopurua.

7.- Berrantolamenduaren aurretik, lurzati kopurua.

8.- Prozesuaren ondotik, lurzati kopurua (datu hori eman ahal denean).

9.- Lurzati berrantolamenduari buruzko foru dekretua zer egunetakoa den.

10.- Lehen aipatu den egunean, eremu bakoitzaren egoera, eta Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko Legearen arabera, lurzati berrantolamendu prozesuaren zein fasetan dagoen eremu horietako bakoitza; gainera, zehazki jakin nahi da burututako lurzati berrantolamendu prozesu osoaren aurrekontua eta, ez bada bukatu, 1998 edo 1999ko ekitaldian burutzea aurreikusita dagoen aurrekontua.

11.- Azkenik, zera nahi da: lurzati berrantolamendua eskatu eta dekretuaren argitarapena itxoiten ari diren eremuen zerrenda.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Ustiategien oinarrizko azalerei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ustiategien oinarrizko azalerei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Abenduaren 9ko Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko 18/1994 Foru Legeak, lurzati berrantolamenduri buruzko dekretua argitaratu eta oinarriak finkoak izan bitartean, ustiategien oinarrizko azalera izenekoak bultzatzen ditu.

Ustiategien oinarrizko azalera hori, eremu bakoitzarentzat, berrantolamenduari buruzko dekretuan ezartzen da; horretarako, berrantolamenduak lortu behar dituen gehiengoak eta gutxiengoak ezartzen dira, beti ere berrantolatu behar den eremuaren produkzio ezaugarrien arabera. Muga ezberdinak ezartzen dira sekain lurretan eta ureztalurretan, eta sekain lurra ureztalur bihurtzeko indizea ere ezberdina izaten da, eta alderantziz.

Ustiategien oinarrizko azalerei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Nafarroako Gobernuak, foru dekretuen bidez, ustiategien oinarrizko azalera ezarri dituen lurralde berrantolamendu eremuen zerrenda. Zera nahi da: eremuaren izena, dekretuaren eguna, hektarea kopurua, ukitutako lurzati eta jabe kopurua, baita azalera horiek lurzati bakoitzerako ezar-

tzen dituzten gehiengo eta gutxiengoak, sekain lurra ureztalur bihurtzeko indizeak, eta baita ere, alderantziz.

2.- Zer irizpide erabiltzen dira ustiategien oinarrizko azalera ezartzeko? Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko Legea indarrean sartu zenetik irizpideak berdinak dira edo aldatu egin dira azalera horiek ezarri diren eremuei buruzko informazio gehiago izan ahala? Marko konparatibo bakarra al dago komunitate osorako?

3.- Nola, edo zer legediren bidez ezartzen dira kontutan hartzen diren irizpideak (erreferentzia errentak)?

4.- Ustiategien oinarrizko azalera da lurzati berrantolamendua eginen den eremu bakoitzean ezartzen diren gehiengo eta gutxiengo jakin batzuen artean dagoena. Irizpide berdinak erabiltzen al dira gehiengo eta gutxiengo ezartzeko? eta sekain lurretan eta urezta lurretan ustiategien oinarrizko azalera ezartzerakoan, irizpide berdinak erabiltzen al dira? eta berrantolamendu prozesua egiten ari den lekuetan?

5.- Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko Legea onetsi zenetik, zer legedi, arautegi, foru dekretu eta agindu, eta ebazpen garatu dira aipatutako legean ustiategien oinarrizko azalera buruz ezarritakoa aplikatzeko?

6.- Egiten al du Nafarroako Gobernuak Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko Legea indarrean sartu zenetik lurzati berrantolamendua egin behar den eremuetan lortu diren emaitzen jarraipenik?

7.- Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko Legea indarrean sartu zenetik hiru urte eta erdi pasa direlarik, ba al da daturik legea egin zenean bete nahi ziren helburuen bete nahi izatea sendotzeko?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 26an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

1998ko abuztuaren 23an, Arga ibaian arrain hilak agertzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak 1998ko abuztuaren 23an, Arga ibaian arrain hilak agertzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Atzo arratsaldean, tamaina ezberdinetako arrain hilak agertu ziren Arga ibaian, Iruñea eta Uharte aldean.

1998ko abuztuaren 23an, Arga ibaian arrain hilak agertzeari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Hartutako ur laginen analisiak egin eta emaitzak jakinda, zein izan da arrainak hil dituen substantzia Arga ibaiaren aipatutako zatian? Produktua iraunkorra da edo diluitu eta kaltetutako eremuak leheneratuko direla segurua da?

2. Produktuaren ezaugarrien arabera, zer izan da, industri hondakinen bat ala kaltetutako lekutik gertu dagoen beste instalazioen bateko beste hondakinen bat? Isurketa puntuala eta leku jakin batekoa izan al da?

3. Nafarroako Gobernuak kalte ekologikoa larria izan dela uste al du? Zein datutan oinarritu da aurreko galderari emandako erantzuna?

4. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak horrelako edo antzeko beste gertakaririk izan den Arga ibaian? Zeintzuk izan dira, zer eragin izan dituzte eta zerk eragin zituen?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

1998ko abuztuaren 23an, Ultzama ibaian arrain hilak agertzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak 1998ko abuztuaren 23an, Ultzama ibaian arrain hilak agertzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Atzo arratsaldean, tamaina ezberdinetako arrain hilak agertu ziren Ultzama ibaian, Iraizozen.

1998ko abuztuaren 23an, Ultzama ibaian arrain hilak agertzeari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Hartutako ur laginen analisiak egin eta emaitzak jakinda, zein izan da arrainak hil dituen substantzia Ultzama ibaiaren aipatutako zatian? Produktua iraunkorra da edo diluitu eta kaltetutako eremuak leheneratuko direla segurua da?

2. Produktuaren ezaugarrien arabera, zer izan da, industri hondakinen bat ala kaltetutako lekutik gertu dagoen beste instalazioren bateko beste hondakinen bat? Isurketa puntuala eta leku jakin batekoa izan al da?

3. Nafarroako Gobernuak kalte ekologikoa larria izan dela uste al du? Zein datutan oinarritu da aurreko galderari emandako erantzuna?

4. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak horrelako edo antzeko beste gertakiririk izan den Ultzama ibaian? Zeintzuk izan dira, zer eragin izan dituzte eta zerk eragin zituen?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Ustiatgien oinarrizko azalerak eratzeko laguntzei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ustiatgien oinarrizko azalerak eratzeko laguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan "Ustiatgien oinarrizko azalerak eratzeko laguntzak, Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko Legea" kontusaila onetsi zen, nekazariari laguntza emateko ustiatgei bideragarriak osa zitzaten eta 40 milioi eman zitzaizkion. Kontusail hori "Nekazaritza azpiegiturak aldatu eta hobetu" izeneko 40. programaren barruan onetsi zen, 27880-0 lerro zenbakia zuen, eta proiektuaren izena zen "Lurzati berrantolamendua (40002)."

Parlamentuko galdera hau dagit zehatz-zehatz jakiteko laguntza horiek nola erabili diren 1998ko ekitaldian.

Lurzati berrantolamenduaren bidez lurzak berriz banatzeko laguntzei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Aipatutako kontusailari aplikagarri zaizkion arauen edukia aldatu duten dekretu eta foru aginduen zerrenda.

2.- Indarrean dagoen ekitaldian, kontusail honetan izan den diru kopurua osatu arte eginiko kopuru handitzeak bai foru aginduen bidez (transferentziak), bai ebazpenen bidez (kreditu handitzeak).

3.- 1998ko ekitaldian erabilgarria den diru kopuru osoaren azalpena: zer kopuru den 1998ko kreditu erabilgarria eta zer 1997an konprometitutako kreditua.

4.- Oraingo aurrekontu ekitaldian, lurzati berrantolamenduaren bidez lurzati azalera hobetzeko egin diren jarduketaren zerrenda. Jarduketa bakoitzari buruzko ondoko datuak nahi dira: udala, jarduketa mota, jarduketaren azalpen laburra, ezarritako oinarriko azalerak, nekazariari emandako laguntzak eta aipatutako helburuak lortzeko aurrekontuan dagoen kontsignazioaren zenbatekoa.

5.- 1999rako hartutako gastu konpromisoa, eta aurreko ekitaldian izapidatutako espedienteak.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Lurzati berrantolamendurako laguntzei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak lurzati berrantolamendurako laguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan "Lurzati berrantolamendu bidezko birbanaketaren-tzako laguntzak" kontusaila onetsi zen, nekazariei laguntza emateko ustiategi bideragarriak osa zitzaten eta 8 milioi eman zitzaizkion. Kontusail hori "Nekazaritzako azpiegiturak aldatu eta hobetu" izeneko 40. programaren barruan onetsi zen, 27870-3 lerro zenbakia zuen, eta proiektuaren izena zen "Lurzati berrantolamendua (40002)."

Parlamentuko galdera hau dagit zehatz-mehatz jakiteko laguntza horiek nola erabili diren 1998ko ekitaldian.

Lurzati berrantolamendu bidezko birbanaketaren-tzako laguntzei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Aipatutako kontusailari aplikagarri zaizkion arauen edukia aldatu duten dekretu eta foru aginduen zerrenda.

2.- Indarrean dagoen ekitaldian, kontusail honetan izan den diru kopurua osatu arte eginiko kopuru handitzeak bai foru aginduen bidez (transferentziak), bai ebazpenen bidez (kreditu handitzeak).

3.- 1998ko ekitaldian erabilgarria den diru kopuru osoaren azalpena: zer kopuru den 1998ko kreditu erabilgarria eta zer 1997an konprometitutako kreditua.

4.- Oraingo aurrekontu ekitaldian, lurzati berrantolamenduaren bidez lurzoruen azalera hobetzeko egin diren jarduketaren zerrenda. Jarduketa bakoitzari buruzko ondoko datuak nahi dira: udala, jarduketa mota, jarduketaren azalpen laburra, ezarritako oinarriko azalera, nekazariei emandako laguntzak eta aipatutako helburuak lortzeko aurrekontuan dagoen kontsignazioaren zenbatekoa.

5.- 1999rako hartutako gastu konpromisoa, eta aurreko ekitaldietan izapidatutako espedienteak.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 25ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Irati eta Aragón ibaietako landarediaren azterlanari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Irati eta Aragón ibaietako landarediaren azterlanariburuz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, 269/1996 Foru Aginduaren bidez onetsi egin zuen Irati ibaiaren (Agoiztik aurrera) eta Aragón ibaiaren (Iratitik Ebrora) inguruko landarediaren azterlana lehiaketa bidez kontratatzeko espedientea.

Lizitazio baldintza orokorretan ezarritakoaren arabera, azterlan hori burutzeko epea 1997ko abenduaren 31n amaitu zen.

Irati eta Aragón ibaietako landarediaren azterlanari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Zein zen aipatutako bideragarritasun azterlana kontratatzearen helburua? Zer enpresa edo instituzio kontratatu zen? Zein izan zen aurrekontua?

2.- Zer ondorio atera ditu Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aipatu azterlanaren ondotik? Jarduketa planik eragin al dute Irati eta Aragón ibaietarako?

3.- Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak jarduketa praktikorik aipatutako azterlan horren emaitzen ondorioz?

4.- Ari al da Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua antzeko azterlanik egiten gure komunitateko beste parke natural edo eremu babesturen batean?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 27an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Bertizko Jaurerriko ugaztunen inbentarioa eta kudeaketarako irizpideei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Bertizko Jaurerriko ugaztunen inbentarioa eta kudeaketarako irizpideei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, 254/1996 Foru Aginduaren bidez onetsi egin zuen Bertizko Jaurerriko ugaztunen inbentarioa eta kudeaketarako irizpideak lehiaketa irekiaren bidez kontratatzeko espedientea.

Lizitazio baldintza orokorretan ezarritakoaren arabera, azterlan hori burutzeko epea 1997ko abenduaren 31n amaitu zen.

Bertizko Jaurerriko ugaztunen inbentarioa eta kudeaketarako irizpideei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Zein zen aipatutako bideragarritasun azterlanaren kontratatzearen helburua? Zer enpresa edo instituzio kontratatu zen? Zein izan zen aurrekontua?

2.- Zer ondorio atera ditu Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aipatu azterlanaren ondotik? Jarduketa plan berezirik eragin al du?

3.- Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak jarduketa praktikorik aipatutako azterlan horren emaitzen ondorioz?

4.- Ari al dira aplikatzen aipatutako azterlanak azaltzen zituen kudeaketa irizpideak? Zenbateraino? Zer arautegiren bidez?

5.- Ari al da Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua antzeko azterlanik egiten gure komunitateko beste parke natural edo eremu babesturen batean?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 27an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako basoilo handien populazioaren bideragarritasun azterlanari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako basoilo handien populazioaren bideragarritasun azterlanari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, 721/1996 Foru Aginduaren bidez onetsi egin zuen Nafarroan basoilo handien populazioak izan dezakeen bideragarritasunari buruzko azterlanaren lehiaketa bidez kontratatzekeo espedientea.

Lizitazio baldintza orokorretan ezarritakoaren arabera, azterlan hori burutzeko epea 1997ko abenduaren 31n amaitu zen.

Nafarroako basoilo handien populazioaren bideragarritasun azterlanari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Zein zen aipatutako bideragarritasun azterlanaren kontratatzearen helburua? Zer enpresa edo instituzio kontratatu zen? Zein izan zen aurrekontua?

2.- Zer ondorio atera ditu Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aipatu azterlanaren ondotik? Jarduketa plan berezirik eragin al du?

3.- Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak jarduketa praktikorik aipatutako azterlan horren emaitzen ondorioz?

4.- Ari al da Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua antzeko azterlanik egiten gure komunitateko beste parke natural edo eremu babesturen batean?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 27an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako Gobernua ELA eta LAB sindikatuekin bildu ez izanari buruzko galdera

PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernua ELA eta LAB sindikatuekin bildu ez izanari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Pedro Romeo Lizarragak, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1.- Zergatik Nafarroako Gobernua ez da bildu ELA eta LABekin Enplegu Plana izanen denari buruz hitz egiteko, UGT eta CCOOekin bildu bada ere?

Iruñean 1998ko abuztuaren 27an

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

Comepor-ekin zerikusia duten hainbat gairi buruzko galdera

LUIS GERARDO LOPEZ ESLAVA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Comepor-ekin zerikusia duten hainbat gairi buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Luis Gerardo López Eslavak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak 1994an Porcelanas del Norte (gaur Comepor) enpresa nafarrari eman zion abalaren 1200 milioiak ordaindu beharko

ditu. Ponsalek zorrak pilatu zituen Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin, eta bizirik iraun badu zergak eta kotizazioak ez dituelako ordaindu izan da. Gero, Ponsalek Nafarroako Gobernuaren laguntza handiak jaso zituen, 1994ko berregituraketa egiten laguntzeko. Laguntza horien artean, Exekutiboak Nafincoren bidez 750 milioiko kreditua eman zion. Hala ere, Europako Batzordeak Ponsali kreditu hori itzul zezan eskatu zion, "legez kontratatzat" jo baitzuen lantegia martxan eusteko eginiko ekintza.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Uste al du Nafarroako Gobernuak enpresa horrek aurrera egin dezakeela nahiz eta ezin dituen zorrak ordaindu? horrela bada, nola ordainduko dira zor horiek?

2.- Zein uste du Exekutiboak dela, momentu hauetan, Comeporrentzat irtenbiderik hoberena? Zer neurri hartuko dira gai horri buruz, arazoa konpontzeko?

Iruñean, 1998ko abuztuaren 26an

Foru Parlamentaria: Luis Gerardo López Eslava

PFEZen aitortzen urteroko kanpainan erabiltzen diren Antso Azkarra kaleko lokalei buruzko galdera

LUIS GERARDO LOPEZ ESLAVA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak PFEZen aitortzen urteroko kanpainan erabiltzen diren Antso Azkarra kaleko lokalei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaun, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Jakin ahal izan denez, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak urtero PFEZ aitortzen egiteko erabiltzen dituen lokaletan higieze eza da nagusi.

Hori horrela, hauexekin jakin nahi da:

1.- Zein higieze egoeratan lan egin dute departamentuko langileek aurreko errenta kanpainan Antso Azkarra kalean?

2.- Hartu al du Nafarroako Gobernuak erabakirik aipatutako lokalen higieze egoera kaskarra konpontzeko?

3.- Lokal horien zer erabilera aurreikusitako du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, irailaren 1ean

Foru Parlamentaria: Miguel Ángel Larrayoz Lezaun

“Kartzela arloko laguntza juridikoaren zerbitzua” izeneko 33570-7 aurrekontu-lerroaren egoerari buruzko galdera

PEDRO URIZ LANZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak “Kartzela arloko laguntza juridikoaren zerbitzua” izeneko 33570-7 aurrekontu-lerroaren egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Pedro Uriz Lanz jaunak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren

babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 6.000.000 pezetako kontusail bat onetsi zen, 33570-7 lerroari dagokiona, eta ondoko izena duena: “Kartzela arloko laguntza juridikoaren zerbitzua”.

Hauexekin jakin nahi da:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jardueren bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2.- 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean, 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Iruñean, 1998ko irailaren 1ean

Foru Parlamentaria: Pedro Uriz Lanz

Etorkinak bertakotzeko ematen diren dirulaguntzei buruzko galdera

REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak etorkinak bertakotzeko ematen diren dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Reyes Cortaire Tirapuk, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren

babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Zera jakin nahi da:

1.- Zer dirulaguntza ematen ditu Nafarroako Gobernuak etorkinak bertakotzeko?

2.- Zeri ematen zaizkio dirulaguntzak?

3.- Zein kontusailen kargura?

4.- Zein elkartek jasotzen dituzte?

5.- Zer jarduketa egiten dituzte elkarte horiek?

6.- Emandako dirulaguntzen zer jarraipen egiten du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 1998ko irailaren 3an

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

Burlatako osasun etxea handitzeko proiektuari buruzko galdera

MARIA ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Burlatako osasun etxea handitzeko proiektuari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejo, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak eta Burlatako Udalak ahozko hitzarmena dute Burlatako Osasun Etxea berritu eta handitzeko, eta horretarako 25 milioiko kontusaila dago.

1997tik hona, Osasun Departamentuak eta Burlatako Udalak hainbat bilera egin dituzte handitze horri buruzko zenbait alderdi zehazteko; hala ere, lanak hasi ere ez dira egin.

Burlatako Udalarekin egindako hitzarmena betetzearen atzerapenak kalte larriak eragiten dizkie biztanleei; gainera, biztanleria asko handitu da azken urte hauetan, jende asko joan baita bizitzera etxe berrietara. Orain dauden beharrak ikusita, osasun etxeak ematen duen laguntza ez da nahikoa.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Azpiegitura eta langile kontuetan, zer aurreikusten du Burlatako osasun etxea handitzeko proiektuak?

2.- Zer epe aurreikusi ditu Osasun Departamentuak proiektua hasi, burutu eta finantzatzeko?

Iruñean, 1998ko irailaren 4an

Foru Parlamentaria: Isabel Arbonies Bermejo

“José M^a Iribarren” ikastetxeari buruzko galdera*PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak “José M^a Iribarren” ikastetxeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Pedro Romeo Lizarragak, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

- 1.- Zer helburu zuen, bere garaian, “José M^a Iribarren” ikastetxe publikoa eraikitzeak?
- 2.- Zer gorabehera gertatu da aipatu ikastetxea helburu horrekin bat ez etortzeko orain?
- 3.- Nork eman du baimena aipatu ikastetxean helduen etengabeko hezkuntzako ikastaroei dagozkien gaiak irakasteko?

4.- Departamentuak ez al du beste lokal edo instalaziorik aipatu ikastaroak garatzeko?

5.- Nork eman du baimena aipatu ikastetxean “gizarteratzeko teknikari espezialistaren” hezkuntza zikloei dagozkien gaiak irakasteko?

6.- Aipatu ikastetxeak betetzen al ditu aipatu hezkuntza zikloak emateko baldintzak?

7.- Nork eman du baimena ikastetxeko bi gelatan parrokiako bulegoa egoteko?

8.- Zerk eragozten du José M^a Iribarren ikastetxe publikoa D ereduko haur hezkuntzako bigarren zikloari dagozkien gaiak irakasteko erabiltzea?

9.- Zer berezitasun du aipatu ikastetxeak irakaskuntza eta irakaskuntzaz kanpoko jarduerak hartzeko bere baitan, eta halere, D ereduko haur hezkuntzako ikasturtea ematea ezinezko izateko? Izan ere, jendea mugitzen hasiz gero, helduak eramatea haurrak tokiz aldatzea baino errazago baita.

Iruñean, 1998ko irailaren 4an

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--